



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
BIKTIMARI LAGUNTZA EMATEKO
ZERBITZUA (BLEZ).
2006. URTEKO TXOSTENA**

AURKIBIDEA

- ◆ AURKEZPENA.
- ◆ ESTATISTIKA DATUAK.
- ◆ ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA.
- ◆ GENERO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUAK.
- ◆ GENERO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA.

AURKEZPENA

1.- Sarrera

Zerbitzu honek 2006. urtean egindako jarduera eta delituen biktimei eskainitako arreta ahalik eta ondoen biltzea izan da memoria honen helburua. Lurralde Historiko bakoitzeko zerbitzuek beren gain hartu dute estatistika-datuak biltzearen ardura. Behin datuak bildu ondoren, hiru taldeek elkarlanean jardun dute urteko memoria egite aldera.

Memorian bi zati bereizten dira. Lehenik, hiru lurraldeetako estatistika-datuen batuketa aurkezten da. Hortik erabiltzailearen profilerak hurbil gaitzke, baita biktimizazio-prozesuari buruzko informazioa jaso ere.

Jarraian, genero-indarkeriari dagozkion estatistika-datuen batuketa aurkezten da, eta hortik horrelako biktimen ezaugarri nagusiak atera daitezke.

2.- Biktimen eskubideak

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) barruan erabili beharreko metodologia hiru atalen (juridikoa, soziala eta psikologikoa) eginkizunen garapenean oinarrituko da. Atal horiek, ongi bereizita badaude ere, elkarri lotuta eta koordinatuta daude une oro, eta diziplina arteko lana egiten dute, batetik, jarraian azaltzen diren helburu guztiak betetzeko, eta, bestetik, delituen biktimen eskubideak babesteko, haien beharren arreta kontuan hartuz.

Konstituzioaren 24. artikulua dioenez, pertsona guztiek eskubidea dute beren legezko eskubide eta interesetan epaileen benetako babesa izateko, eta ezein kasutan inor ere ez da defentsarik gabe geratuko. Artikulu hori biktimari aplikatzen zaio.

Orobat, biktimek honako eskubide hauek izango dituzte: 35/95 Legeak ezarritako laguntza publikoei buruz informazioa jasotzeko eskubidea. Indarkeriazko doluzko delituen eta/edo sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima direnek eskuratu ahal izango dituzte laguntza ekonomiko horiek, Legeak ezarritako kopuruetan, zigor-auzibidean ebazpen judizial irmoa eman ondoren. Epaia eman aurretik, aipatutako delituen biktima diren eta ezegonkortasun-egoera ekonomikoan dauden biktimek behin-behineko laguntza eskatu ahal izango dute.

Zigor-ekintza gauzatzeko eskubidea, salaketa edo kereila aurkeztuz; horren kopia edo egiaztagiria jasoko da.

Poliziarengandik ikerketaren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, 35/95 Legea, 15. artikulua.

Ekintzen eskaintza formalari buruz informazioa jasotzeko eskubidea. Salaketa jartzerakoan jakinaraziko zaio akusazio partikular gisa abokatu eta prokuradorearekin ager daitekeen edo haren interesak babestearen ardura Ministerio Fiskalak hartuko duen.

Auziaren parte izateko eta akzio zibila gauzatzeari uko egiteko eskubidea. 35/95 Legea, 15. artikulua.

Galdeketa haren egoera pertsonala, eskubideak eta duintasuna errespetatuak izateko eskubidea. 35/95 Legea, 15. artikulua.

Epaiketa noiz eta non egingo den jakiteko eta epaiaren jakinarazpena jasotzeko eskubidea (epaia auziaren parte ez bada ere). 35/95 Legearen 15. artikulua.

Uztailaren 31ko 27/2003 Legean onartutako eskubideak; etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen du lege horrek.

Genero Indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 lege organikoan onartutako eskubideak.

3.- Biktimen beharrak

Biktimek dagoen biktimizazio-egoerari aurre egiteko egonkortu beharra dute. Horretarako beharrezkoa da:

- Biktimak bere eskubideen eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoen berri izatea.
- Profesional batek biktimari gertatutakoarekin zerikusia duen dinamikari buruzko azalpena ematea (delitua zergatik jasan duen).
- Biktimak informazio eta prestakuntza egokia jasotzea, hurbileko inguruneke portaerei buruz.
- Auzibideari buruzko informazioa ere jaso dezan, baita egingo diren lege-izapide guztiei buruzkoa ere.
- Esparru horretan jarduten duten profesionalek biktimaren duintasuna eta intimitatea errespetatzea, galera handiagoak gerta ez daitezen (biktimizazio osagarria).
- Esku-hartze integrala eta espezializatua jasotzea, profesional baten eskutik beste baten eskura etengabea igaro gabe, horrek egoera are okerrago bihur baitezake.
- Gizarte eta psikoterapia mailan lehenbailehen esku hartzea.

- Orientazio espezializatua eta koordinatua, baliabide pertsonal eta sozial guztiak eraginkortasunez kudeatuz, jasaten duen segurtasun-gabeziako eta harridurazko sentimendua arintzeko.

4.- Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei buruzko Informazioa

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua doako eta borondatezko zerbitzu bat da, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren menpe dago. Giza Eskubideak egiaz sustatzeko esparruan, eta Europako beste herrialde batzuetan biktimei laguntzeko dagoen mugimenduaren barnean dago.

Batez ere delituen biktimei informazioa emateko, laguntza eskaintzeko eta operadore juridikoekin lankidetzan jarduteko zerbitzua da. BLZk hiriburu bakoitzean jende kualifikatua du eremu juridikoan, psikologikoan eta gizarte-laguntzaren esparruan. Horretaz gain, funtzionatzeko autonomia-maila handia du.

Zerbitzuaren **helburu nagusiak** honako hauek dira:

-Herritarrei biktimak defendatzeko prozedurei buruzko informazioa ematea, baita biktimizazioari buruzko prebentzio-neurriak hedatzea ere.

-Herritarrak delinkuentziaren ondorioez kontzientziaztea eta ondorioak herritarrei hedatzea.

-Inplikaturako Erakundearen koordinazioa sustatzea.

-Babes Aginduen ondoriozko administrazio-koordinazioaren Zentro koordinatzailea izatea

Honako zerbitzu hauek eskaintzen dira: berehalako laguntza psikologikoa ematea; prozedura polizialetan eta judizialetan aholkuak ematea prozedurak amaitu arte; premiazko laguntza sanitarioa behar izanez gero, laguntza eskaintzea, dauden bitarteko sozialei buruzko informazioa ematea, biktimaren gizarte-ingurunean laguntza ematea erakundearen lankidetzarekin, eta abar.

Zerbitzu hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eskaintzen da, eta uztailaren 31ko 27/2003 Legea —etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena— indarrean jarri zenetik aurrera, adierazitako agindua aplikatzeari dagokionez, administrazio-koordinazioaren zentroaren eginkizunak betetzen ditu.

Biktimei dagokienez, honako hauek dira zerbitzuaren berariazko **helburuak**:

-Salaketa jartzerakoan eta salaketa jarri ondoren biktimari informazioa eta aholkuak ematea. Oso garrantzitsua da biktimari behar bezalako aholkuak ematea delituzko egintza gertatu eta berehala.

- Delituak biktimari eragin dion gatazkari ahalik eta konponbiderik egokiena aurkitzen laguntzea.
- Biktimak dituen eskubideei buruz informazioa ematea.
- Behar izanez gero, biktimei laguntza psikologikoa eta soziala ematea.
- Biktima eskumeneko gizarte-zerbitzu egokietara bideratzea, behar izanez gero.
- Operadore juridikoei behar duten informazioa ematea —betiere biktimaren baimenarekin— haien ikuspuntuaren kontuan hartuta, erabaki egokienak hartzeko.
- Biktimen eskubideak sustatzea eremu judizialean.
- Delituzko jarduerak direla-eta ezartzen diren salaketan kopurua ugaritzea, sistema judizialarekiko konfiantzaren adierazle gisa.
- Biktimen beharrak biltzen, haien eskubideak sustatzen eta erakunde publikoen aurrean hizketakide gisa jarduten duten biktimen elkarteak sustatzea.
- Biktimak jarritako salaketari buruzko aholkuak ematea eta jarraipena egitea edozein bidetatik egindako zigor-auzibidea amaitu arte.
- Biktimizazio-prozesuei buruzko informazioa biltzea bulegoak dauden hirietan eta inguruko herrietan (Bilbo, Donostia, Gasteiz), eta batez ere “Bigarren Mailako Biktimizazioa” izeneko eremuan.
- Biktimari laguntza eskaintzea bere ingurune sozialean (familia, auzoa, etabar).

Honako hauek dira zerbitzuaren **jardun-eremuak**:

-Biktimei laguntzea: BLZ zerbitzuak bertara jotzen duten edozein motatako delituzko biktimei eskaintzen die laguntza, adierazitako laguntza-eskaeraren edukiaren arabera, kasu jakin bakoitzaren azterketak berariazko zerbitzu eta erakundeetara jotzea egokiagoa dela ezartzea bazter utzi gabe.

Oso garrantzizkoa da biktimak lehen unetik jasotzea laguntza eta informazioa; horregatik gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, polizia kidegoek eta operadore juridikoek berebiziko garrantzia dute BLZri eta zerbitzu horrek ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa emateko biktimei.

-Epaitegiei eta Fiskaltzei informazioa ematea: BLZren jardun nagusietako bat zera da: biktimaren egoera sozialari, pertsonalari, familiarrari, psikologikoari, ekonomikoari eta antzekoei buruzko Gizarte Txostenak egitea Epaitegi eta Fiskaltzetarako. Betiere biktimaren baimenarekin, jakina.

Zeregin horrekin Justizia Administrazioak humanizatzearen alde lan egin nahi da, baita biktimaren beharrak asetzearen alde ere, operadore juridikoek behar duten informazio guztia eduki dezaten lagunduz.

-Gizarteari informazioa ematea: herritarren segurtasun-gabeziaren eraginak prebenitzeko eta gutxitzeko politikak informazio-politika eraginkorrean oinarritu behar du. Horretarako, jarduteko oinarrizko ildoak ezarri behar dira:

- Hedatzeko kartelak erakunde eta organismoetan: Komisarietan, Abokatuen Elkargoetan, Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan eta antzekoetan.
- Gaiari buruzko informazio-triptikoak.
- Jarduera-esparru horretan parte hartzen duten herritarren erakunde eta elkarteekin bilerak egitea.
- Jende guztiari egokitutako informazioa: delinkuentziaren tokiko errealitatea, iritzi-azterketak eta biktimizazio-inkestak.

Honako hauek dira Zerbitzuaren egintzen lanaren **funtssezko alderdiak**:

-Biktimei honako hauei buruzko informazioa ematea:

- Delitu bat egitearen ondoriozko erantzukizun zibila eraginkorra egitea ahalbidetzen duten arauzko jarduteei, ofizio-abokatueta iristeko moduari, doako Justiziari eta abarri buruz.
- Izandako kalteak diru publikoarekin ordaintzeko aukera (35/1995 Legea eta beste arau batzuk)
- Biktimen eskubideak baliarazteko legezko prozedurak.
- Hainbat polizia-jardun edo beste jardun mota batzuk.
- Biktimak gauzatu beharreko jardunak, beste biktimizazio baten arriskuak saihesten dituztenak: hartu beharreko segurtasun- eta babes-neurriak.

-Arreta berezia:

- Berariazko izapideak egin direla bermatzea: biktimak salaketa aurkeztu duela, abokatu baten laguntza duela, segurtasun- eta babes-neurriak hartu direla eta abar.
- Biktimak duen arazoari buruzko informazioa eta laguntza jasotzen duela egiaztatzea: legezko esparruari eta jarduteko aukerei, osasun-sarera, gizarte-sarera eta antzekoetara bideratzeari dagokionez.
- Biktimaren ahaideekin, lagunekin eta biktimari babesa ematen dion ingurunearekin harremanetan jartzea.

- Etengabeko arreta:

- Biktimak salaketa izapidetzeari buruz etengabeko informazioa ematea.
- Jasandako egintzaren ondoriozko bilakaera sozioemozionala aztertzea eta dagokion zerbitzura bideratzea, betiere BLZk egingo dio jarraipena.
- Gizartean dauden bitartekoak erabiltzea.
- Biktimak duen segurtasun-gabeziaren eta isolamenduaren sentimendua murriztea eta bizi izandako egoera baliatzea biktima bere ingurunearekin (familia, auzokoak eta abar) hobeto erlazionatzen laguntzeko egintzak sustatzea.

-Babes Aginduaren ondoriozko Zentro Koordinatzailea da: Koordinazio Protokoloak ezartzen duenaren arabera, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkorra izateko zerbitzua da eta Koordinazio zentro horiek jada badauden Biktimak Laguntzeko zerbitzuetan dute egoitza, halaber, delituzko biktimen orientazio juridikoari, psikologikoari eta sozialari dagokionez, zentro horiek agindutako lanak betetzen jarraitzen dute; bereziki indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako erasoei dagokienez, 35/95 Legean ezarritako laguntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2003ko abenduaren 9ko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera, etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren delituak zirela medio jada bazeuden Lurralde Koordinazioaren Zentroaren eginkizuna Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan ezarri zen.

Gizarte-eremuari dagokionez, zerbitzuen arteko koordinazioa, zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalen ongi egite garrantzitsua kontuan hartuta egiten da, baita *“etxeko indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasuna gizarte-zerbitzuen eremuan koordinatzeko protokoloa”* izenekoan ezarritakoa kontuan hartuta ere.

Hain zuzen ere, Babes Aginduari dagokionez, honako hauek izango dira Biktimari Laguntzeko Koordinazio Zentroen eta Zerbitzuen helburu nagusiak:

- Gizarte-laguntzarako eta gizarte-babeserako neurriak koordinatzea. Horretarako, Jurisdikzio Organoek emandako babes-neurriak jaso behar dituzte eta eskumeneko organismoek igorri behar dizkiete adostutako laguntzak eman ditzaten.
- Biktimari informazioa ematea eta biktima gizarte-baliabideetara eta gizarte-laguntzetara bidaltzea. Agindua organismo batera edo bestera bidaltzerakoan biktimak laguntza Koordinazio Zentroan eskatu duen edota Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan egin duen. Hortaz, babes-agindua jasotakoan, zerbitzu hori biktimarekin harremanetan jarriko da dauden laguntza-bitartekoen eta gizarte-babeserako bitartekoen berri emateko, biktimaren beharrak zein diren jakitearren eta babes-agindua

eskumeneko organismoek igortzearen biktimak eskatuko dituen laguntzak eman ahal izateko.

- Erruztatuari ezarritako zigorraren egoerari buruz etengabeko informazioa ematea, baita kautelazko neurrien irismenari eta indarraldiari buruz ere. Hortaz, babes-agindua ezartzea erabakitzen duen epaitegiak bulego honi honako hau jakinaraziko dio idazki bidez: agindua ezarri dela eta erruztatuari eragiten dioten auzibideko egoerak zein diren, baita zigor-betearazpenaren fasean ere.
- Estatistika bat egitea, eranskineko ereduaren arabera. Estatistika horretan biktimek jasotzen dituzten babes-aginduen kopurua eta hartutako neurriak azalduko dira, baina ez da datu pertsonalik aipatuko.



ESTADÍSTICA DATUAK

ARRETA ESKAINI ZAIEN ERABILTZAILEEN TAULA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
BERRIAK	426	1262	714	2402
AURREKOAK	421	714	365	1500
GUZTIRA	847	1976	1079	3902

ERABILTZAILE BERRIEN MOTA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G
ZENBATEKOA	1946	243	96	43	2042	286
%-TAN	95.30	84.96	4.70	15.03	100	100

BIDALKETEN JATORRIA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Barruti judizialak	1447	153	27	11	1474	171	72.18	59.79
Fiskaltza	10	-	4	2	14	2	0.68	0.70
Auzitegiko medikua	7	1	1	-	8	1	0.39	0.35
Ertzaintza	98	22	11	7	108	29	5.29	10.15
Bestelako Poliziak	16	3	3	3	19	6	0.93	2.10
Osasun Zerbitzuak	9	1	1	1	10	2	0.49	0.70
Gizarte Zerbitzuak	146	16	11	8	157	24	7.69	8.39
ALEZ	-	2	3	2	3	4	0.15	1.40
LJZ	-	-	-	-	-	-	-	-
Abokatuak	61	13	5	1	66	14	3.23	4.89
Administrazioa	14	4	1	-	15	4	0.73	1.40
Elkarteak	-	-	-	-	-	-	-	-
Norberak	22	11	5	-	27	11	1.32	3.85
Beste erabiltzaile batzuk	31	5	4	4	35	9	1.71	3.15
Beste batzuk	76	9	16	3	92	12	4.50	4.19
E.D.D.	9	2	4	-	13	2	0.64	0.70
GUZTIRA	1946	242	96	42	2042	286	100	100



JASANDAKO KALTEAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
FISIKOAK	1127	150	56	23	1183	173	29.42	26.70
PSIKIKOAK	1098	163	70	27	1168	140	29.05	21.60
EKONOMIKOAK	716	113	45	21	761	134	18.92	20.68
SOZIALAK	801	101	42	17	843	118	20.96	18.21
ZEHAZTUGABEAK	62	29	4	4	66	33	1.64	5.09
GUZTIRA	3804	556	217	92	4021	648	100	100

ADINA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
0-6	1	-	-	-	1	-	0.05	-
7-12	8	1	-	-	8	1	0.40	0.35
13-18	48	8	1	-	49	8	2.45	2.80
19-25	233	43	3	-	236	43	11.80	15.05
26-35	608	44	19	9	627	53	31.35	18.55
36-45	548	61	36	20	584	81	29.20	28.35
46-55	237	36	22	8	259	44	12.95	16.40
56-65	92	16	5	3	97	19	4.85	6.65
> 65	80	26	2	1	82	27	4.10	9.45
E.D.D.	91	8	8	2	99	10	4.95	3.50
TOTAL	1946	243	96	43	2042	286	100	100

EGOERA PERTSONALA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ezkongabea	543	73	19	8	562	81	27.52	28.32
Ezkondua	835	90	52	25	887	115	43.44	40.21
Izatezko bikotea	151	22	1	2	152	24	7.44	8.39
Banandua	197	6	8	6	205	12	10.04	4.20
Dibortziatua	62	6	6	-	68	6	3.33	2.10
Alarguna	36	5	4	-	40	5	1.96	1.75
Izatezko bikote banandua	23	6	3	2	26	8	1.27	2.80
E.D.D.	99	19	3	-	102	19	4.99	6.64
GUZTIRA	1946	243	96	43	2042	286	100	100

IKASKETAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ikasketa gabea	15	3	-	-	15	3	0.73	1.05
Lehen mailakoak	634	82	32	13	666	95	32.62	33.22
Ertainak	735	66	29	14	764	80	37.41	27.97
Goi-mailakoak	224	40	15	7	239	47	11.70	16.43
E.D.D.	338	52	20	9	358	61	17.53	21.33
GUZTIRA	1946	243	96	43	2042	286	100	100

LAN EGOERA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
LANGILEA	Autónomo/a	90	18	5	4	95	22	4.65	7.69
	Fijo/a Cuenta Ajena	300	52	26	21	326	73	15.96	25.52
	Eventual Cuenta Ajena	343	16	10	4	353	20	17.29	6.99
	N.A.D.	13	3	1	-	14	3	0.68	1.05
LANGABEA	Ayuda Social	115	17	7	-	122	17	5.97	5.94
	Prestación Desempleo	37	4	2	-	39	4	1.91	1.40
	Subsidio Des.	39	8	-	-	39	8	1.91	2.80
	Sin Prestación Econ.	102	16	4	2	106	18	5.19	6.29
	N.A.D.	17	3	1	1	18	4	0.88	1.40
Jubilatua/pentsioduna		96	34	7	7	103	41	5.04	14.33
Ikaslea		124	20	1	2	125	22	6.12	7.69
Etxekoandrea		313	-	20	-	333	-	16.31	-
Ezkutukoa		78	5	2	-	80	5	3.92	1.75
E.D.D.		279	47	10	2	289	49	14.15	17.13
GUZTIRA		1946	243	96	43	2042	286	100	100

HUTSEGITEAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoak	Lesioak	66	27	9	4	75	31	28.74	39.24
	Zuhurtziagaberiak eragindako lesioak	2	-	2	-	4	-	1.53	-
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Familiarteko tratu txarrak	10	5	-	-	10	5	3.83	6.33
	Mehatxu arinak	70	23	11	2	81	25	31.03	31.65
	Irainak eta isekak	70	6	1	1	71	7	27.20	8.86
	Derrigortzeak	13	6	3	2	16	8	6.13	10.13
Ondasunen aurkakoak	Ebasketa	-	1	-	-	-	1	-	1.27
	Maula	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bidegabeko jabetza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	4	2	-	-	4	2	1.53	2.53
	Iruzurketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Interes orokorraren aurkakoa		-	-	-	-	-	-	-	-
Ordena publikoaren aurkakoa		-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA		235	70	26	9	261	79	100	100

DELITUAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoa	Legez kontrako atxiloketa	5	-	-	-	5	-	0.25	-
	Mehatxuak	208	13	5	6	213	19	10.44	8.23
	Hertsatzeak	86	3	2	4	88	7	4.31	3.03
Askatasunaren aurkakoa	Tratu txarrak	1108	108	11	5	1119	113	54.85	48.92
	Ohiko tratu txarrak	245	8	14	6	259	14	12.70	6.06
	Giza hilketa	4	3	3	3	7	4	0.34	1.73
	Tentatiba	-	-	-	-	-	-	-	-
	Lesioak	111	22	17	9	128	31	6.27	13.42
Sexu askatasunaren aurkakoa	Sexu-erasoa	64	1	8	4	72	5	3.53	2.16
	Bortxaketa	9	-	3	2	12	2	0.59	0.86
	Sexu-abusua	22	-	10	4	32	4	0.64	1.73
	Sexu-jazarpena	-	-	-	-	-	-	-	-
	Erakuts-zalekeria eta sexu zirikatzeari	-	-	1	-	-	1	-	0.43
	Prostituzioa eta adingabearen galbideratzea	1	-	-	-	1	-	0.05	-
Orearen aurkakoa	Kalumniak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Irainak	-	1	-	-	-	1	-	0.43
Intimitatearen aurkakoa	Sekretuak ezagutarazi eta agertaraztea	3	-	-	-	3	-	0.15	-
	Bizilekua bortxatzea	2	-	-	-	2	-	0.10	-
Familia harremanen aurkakoa	Legez kontrako ezkontza	2	-	-	-	2	-	0.10	-
	Adingabearen egoera aldaraztea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Pentsioa ezordaintzea	3	-	-	-	3	-	0.15	-
	Adingabeak ateratzea	17	2	-	-	17	2	0.83	0.86
	Adingabeak uztea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ondarearen aurkakoa	Ebasketa	12	-	-	-	12	-	0.59	-
	Lapurreta	4	2	-	-	4	2	0.20	0.86
	Estortsio	15	6	4	1	19	7	0.93	3.03
	usurpazio	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ibilgailua erabiltzeko lapurreta/ebasketa	-	1	-	-	-	1	-	0.43
	Prezioen aldaketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Maula	5	4	-	-	5	4	0.25	1.73
	Bidegabeko jabetza	1	3	-	-	1	3	0.05	1.30
	Iruzurrezko kaudimengabezia	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	7	6	-	-	7	6	0.34	2.60
Dokumentu publikoak faltsutzea	Dokumentu publikoak	1	2	-	-	1	2	0.05	0.86
	Dokumentu pribatuak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	-	-



Ord1ena publikoaren aurkakoa	Terrorismoa	1	-	-	-	1	-	0.05	-
	Agintarien aurkako atentatuak	-	1	-	-	-	-	-	0.43
	Nahasketa publikoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Justizia Administrazioaren aurkakoa	Akusazio faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Lekukotasun faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Desleialtasuna	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ebazpen judizialaren ez betetzea	27	-	-	-	27	-	1.32	-
	Kondena urratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Prebarikazio	-	-	-	-	-	-	-	-
	Estalketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Segurtasun kolektiboaren aurkakoa	Osasun publikoaren aurkakoa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Trafiko segurtasunaren aurkakoa	1	1	-	-	1	1	0.05	0.43
	Kalte handiak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Suteak	-	-	-	-	-	-	-	-
Langileen eskubideen aurkakoa		1	-	-	-	1	-	0.05	-
Sorospen eginbeharra ez betetzea		-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA		1965	187	78	44	2043	231	100	100

EGILEA

			ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
			E	G	E	G	E	G	E	G
IDENTIFIKATUA	AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	925	69	19	7	944	76	46.23	26.57
		Aurrekoa	62	11	8	2	70	13	3.43	4.55
		Ondorengoa	133	33	3	2	136	35	6.66	12.24
		Albokoa	55	14	7	3	62	17	3.04	5.94
		Ezkon-ahaidea	6	8	1	1	7	9	0.34	3.15
	BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	407	19	7	5	414	24	20.27	8.39
		Laguna	27	5	2	1	29	6	1.42	2.10
		Lankidea/ikaskidea	41	8	9	3	50	11	2.45	3.85
		Auzokidea	26	12	3	-	26	12	1.27	4.19
		Beste batzuk	69	25	17	10	86	35	4.21	12.24
	EZEZAGUNA		150	26	16	3	166	29	1.42	10.14
IDENTIFIKATU GABEA			18	5	2	4	20	9	0.98	3.15
E.D.D.			27	8	2	2	29	10	1.42	3.50
GUZTIRA			1946	243	96	43	2042	286	100	100

ZUZENEGO ETA ZEHARKAKO BIKTIMAREKIKO HARREMANA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	18	5	33	24.44
	Aurrekoa	33	11	44	32.59
	Ondorengoa	10	9	19	14.07
	Albokoa	7	3	10	7.41
BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	6	3	9	6.67
	Laguna	-	1	1	0.74
	Lankidea/ikaskidea	1	-	1	0.74
	Auzokidea	5	1	6	4.44
	Beste batzuk	11	11	22	16.30
E.D.D.		-	-	-	-
GUZTIRA		91	44	135	100

BIZITOKIAREN ETA GERTAKARIAREN TOKIAREN ARTEKO LOTURA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
BAI	Etxean	1137	125	1262	57.65
	Auzo-komunitatea	43	6	49	2.24
	Auzoa	136	23	159	7.26
	Lantokia/ikastexea	64	7	71	3.24
	Beste batzuk	143	9	152	6.94
EZ		300	52	352	16.08
E.D.D.		123	21	144	6.58
GUZTIRA		1946	243	2189	100

SALAKETA JARTZEKO EDO EZ JARTZEKO ARRAZOIAK

		ZUZENEGO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Justizia administrazioaren jardutea bilatzea	1161	289	46	25	1207	314	40.21	54.61
	Itzultze materiala bilatzea	65	48	6	3	71	51	2.37	8.87
	Biktima babesteko neurriak bilatzea	1345	133	26	19	1371	152	45.67	26.43
	Salatuarentzako neurri alternatiboak bilatzea	30	4	1	1	31	5	1.03	0.87
	Beste batzuk	22	2	1	3	23	5	0.77	0.87
	GUZTIRA	2623	476	80	51	2703	527	90.04	91.65
EZ	Egilearekiko lotura afektiboagatik	93	12	7	5	100	17	3.33	2.96
	Erasotzailearekiko beldurragatik	42	4	3	2	45	6	1.50	1.04
	Erantzun penalak arazoa konpondu ez duelako	37	7	9	3	46	10	1.53	1.74
	Justicia Administrazioarekiko konfiantza ez dagoelako	18	-	4	-	22	-	0.73	-
	Epaitegitik kanpoko akordioa dagoelako	1	1	6	-	7	1	0.23	0.17
	Beste batzuk	52	4	11	6	63	10	2.10	1.74
	GUZTIRA	243	28	40	16	283	44	9.43	7.65
N.A.D.		12	4	4	-	16	4	0.53	0.70
GUZTIRA		2878	508	124	67	3002	575	100	100

AURREKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Egile bera delitu bera	1018	99	30	17	1048	116	5.32	40.56
	Egile ezberdina delitu bera	68	8	6	2	74	10	3.62	3.50
	Egile bera delitu ezberdina	68	3	3	2	71	5	3.48	1.75
	Egile ezberdina delitu ezberdina	37	3	2	2	39	5	1.91	1.75
EZ		613	103	43	19	656	122	32.13	42.66
E.D.D.		142	27	12	1	154	28	7.54	9.79
GUZTIRA		1946	243	96	43	2042	286	100	100

BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Poliziala	23	10	2	2	25	12	1.19	4.04
	Judiziala	115	22	13	3	128	25	6.11	8.42
	Abokatuak	59	10	1	1	60	11	2.86	3.70
	Soziofaiilarra	321	38	23	13	344	51	16.41	17.17
	Beste batzuk	64	9	6	4	70	13	3.34	4.38
EZ		1109	112	44	23	1153	135	55.01	45.45
E.D.D.		305	50	11	-	316	50	15.08	16.84
GUZTIRA		1996	251	100	46	2096	297	100	100

DEMANDA MOTA

		BIKTIMA ZUZENA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Arreta Juridikoa	Eskubideak	649	116	62	26	711	142	23.07	27.31
	Kalte ordaina	84	27	22	5	106	32	3.44	6.15
	Prozedura	589	133	61	19	650	152	21.09	29.23
Arreta Psiko.	Tratamentua	431	49	36	15	467	64	15.15	12.31
	Kontsulta								
Arreta soziala	Informazioa	924	102	37	16	961	118	31.18	22.69
	Diagnostikoa								
	Norabideratzea								
	Errekurtso kudeaketa								
Akonpainamendua		67	4	1	-	68	4	2.21	0.77
Bitartekotzarako gai		-	-	-	-	-	-	-	-
Zehaztu gabea		119	8	-	-	119	8	3.86	1.54
GUZTIRA		2863	439	219	81	3082	520	100	100

ESTADISTIKA DATUEN BALIOESPENA

Laguntza eman zaien lagunen kopurua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuetan (BLZ), 2006. urtean, 3.902 laguni eman zaie laguntza guztira, hau da, 6.933 esku-hartze izan dira, batez ere, zuzeneko elkarrizketak eta jarraipenak egin dira.

Lan hori Zerbitzuetara lehen aldiz (2.402) hurbildu diren 3.902 lagunek eragin dute, baita aurreko urteetako erabiltzaileek ere (1.500). Erabiltzaile horiek duten problematika dela medio, gaur egun ere ematen zaie laguntza motaren bat erabiltzaile horiei.

Erabiltzaile mota

Datuak aztertuta, nabarmentzekoa da BLZetan laguntza eman zaien lagunen %87,18 (2.094) emakumeak direla; %12,82 (308), aldiz, gizonak dira.

Laguntza eman zaien emakumeei dagokienez, %95,30 zigor-gertakari baten zuzeneko biktima izan da eta %4,70 zeharkako biktima. Gizonen artean, %84,96 zuzeneko biktima izan da eta %15,03, aldiz, zeharkako biktima.

Bidalketa jatorria.

Aurreko urteetan bezala, emakumeak batez ere Barruti Judizialeetatik (%72,18) eta Gizarte Zerbitzuetatik (%7,69) etorri dira.

Gizonei dagokienez, gehienak Barruti Judizialek bideratzen dituzte (%57,79), beste batzuek Ertzaintzak (%10,15) eta, azkenik, Gizarte Zerbitzuek bideratzen dituztenak daude (%8,39).

Adina.

Adinari dagokionez, aniztasuna da nagusi. Emakume gehienek (%31,35) 26-35 urte dituzte, %29,20k 36-45 urte ditu eta %12,95ek 46-55 urte.

Gizonek ere antzeko ordenari jarraitzen diote. Ehuneko handiena 36-45 urtekoetan dago (%28,35), ondoren, 26-35 urtekoak daude (%18,55) eta azkenik, 46-55 urtekoak (%15,40) eta 19-25 urtekoak daude (%15,05).

Egoera zibila.

BLZetara etortzen diren erabiltzaile gehienak ezkonkida daude, emakumeen %43,44 eta gizonen %40,21; ezkongabeak, berriz, emakumeen %27,52 eta gizonen %28,32 dira eta bananduak, emakumeen %10,04 eta gizonen %4,20 dira.

Ikasketak.

BLZetara joaten diren emakumeen %37,41ek erdi-mailako ikasketak ditu; gizonen %33,22k, ordea, lehen mailako ikasketak ditu. Alderantziz, berriz, emakumeen %32,62k lehen mailako ikasketak ditu oraindik eta gizonen %27,97k erdi-mailakoak ditu.

Lan egoera.

Emakumeei dagokienez, %17,29 biztanleria aktiboa da, batez ere besteren kontura lan egiten duten langileak dira eta aldi baterako kontratuak dituzte, %15,96 kontratu finkoa duten eta besteren kontura lan egiten duten emakumeak dira eta %16,31 etxeko andreak dira.

Gizonei dagokienez, %25,52 jardunean dago eta kontratu finkoa du, %14,33 erreiro-egoeran dago eta beste batzuek (%17,13) ez dute daturik eman.

Arau-haustearen mota/kalifikazioa.

Aipatzekoa da 2006. urtean zenbait lege-aldaketa egin direla. Gainera, EAEko etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduak koordinatzeko zentroek BLZetan izan dute egoitza. Horren eta beste zenbait faktoreren eraginez, arreta eman zaien lagun gehienak delitu gisa sailkatutako egitateen biktimak dira. Aurreko urteetan, berriz, zerbitzuak baliatu dituztenen gehiengo zabala hutsegite gisa sailkatutako delituzko egitateen biktima zen.

Nabarmendu beharrean gaude gehienak pertsonen aurkako delituak direla (tratu txarrak, lesioak, mehatxuak eta abar) eta familia-indarkeriarekin zerikusia duten arazoek eragin dituztela, bai emakumeei (%74,16), bai gizonei (%70,13) dagokienez.

Aurreko biktimizazioak.

Puntu honetan aztertzen da BLZ lehen aldiz baliatzen duten lagunek beste biktimizazio bat jasan ote duten oraingoan azaltzera datozenaren aurretik. Nabarmenezkoa da emakumeen %60k aldeztu aurreko biktimizazioak jasan dituela, eta kasuen % 51,32an delitu-egilea eta jasandako delituzko egitatea berdinak direla.

Gizonei dagokienez, %47,56k nolabaiteko biktimizazioa jasan du, eta kasuen %40,56an egilea eta delituzko egitatea berdinak dira.

Zuzeneko biktimaren eta zeharkako biktimaren arteko harremana.

Delituzko egitatea zuzenean jasan ez badute ere horren ondorioetako bat jasaten dutenak dira zeharkako biktimak, bai zuzeneko biktimarekin afektibitate-harremana dutelako, bai biktimaren kolektiboko kide direlako.

Kasuen %78,51ri dagokionez, dagoen harremana familiakoa da.

Egilea.

Atal honetan alde handia nabari da, biktima gizona izan edo emakumea izan.

Emakumeei dagokienez, kasuen %89,47tan delituzko egitatearen egilea biktimaren gertukoa da: ezkontidea, izatezko bikotea (%46,23), senar-emaztegaia edo bikotekide ohia (%20,27), bereziki.

Gizonei dagokienez ere delitu-egilea ezaguna izaten da gehienetan (%83,23): ezkontidea, izatezko bikotea (kasuen %26,57), ondorengoa (kasuen %12,24), eta senar-emaztegaia edo senar-emaztegai ohia (kasuen %8,39).

Bizitokiaren eta gertakariaren tokiaren arteko lotura.

Laguntza eman zaien emakumeen %77,33 gertakaria jazo den toki berean bizi da. Delituzko egitatea etxean bertan (emakumeen %58,43) edo bizi diren auzoan (%6,99) jazo da.

Laguntza eman zaien gizonen %69,96 gertakaria jazo den tokian bizi da. %51,44tan etxean gertatu da, eta %9,47tan bizi diren auzoan.

Salaketa jartzeko edo ez jartzeko arrazoiak.

Laguntza eman zaien biktima gehienek salaketa jarri ondoren eta prozedura izapidetzen ari dela baliatzen dute BLZ (emakumeen %85,59 eta gizonen %81,82).

Emakumeen %1,22k bakarrik jartzen du salaketa BLZren aholkua entzun ondoren. Emakumeen %13,57k eta gizonen %14,69k, ordea, ez dute jartzen hainbat arrazoiengatik.

Motibazioa.

Salaketa jartzen duten biktima gehienek babes-neurriak bilatzen dituzte salaketa jartzerakoan (emakumeen %45,67k). Halaber, jasandako delituan Justizia Administrazioak jardun dezan bilatzen du %40,21ek. Gizonen kasuan, berriz, justizia-administrazioak jardutea bilatzen dute batik bat (%52,61), %26,43k, ordea, babes-neurriak bilatzen ditu.

Delitua jasan arren salaketa jartzeari uko egiten dioten biktimei dagokienez, emakumeen %3,33k eta gizonen %2,96k ez du salaketarik jartzen delituaren egilearekin harreman afektiboa duelako edo haren beldur delako, bereziki.

Bigarren mailako biktimizazioa.

Emakumeen %15,08an eta gizonen %16,84an informazio hori bildu ezin izan den arren, nabarmentzekoa da emakumeen % 55,01ean eta gizonen %45,45ean BLZko profesionalak ez duela bigarren mailako biktimizazioaren

zantzurik aurkitu. Bigarren mailako biktimizazioa gertatu den kasuetan, emakumeen %16,41ek eta gizonen %17,17k adierazi dute gizarte- eta familiarloan gertatu dela. Ezin da aipatu gabe utzi arlo judizialean gertatzen den biktimizazioa: emakumeen kasuan, %6,11 eta gizonen kasuan, %8,42.

Demanda mota.

Zerbitzuaren erabiltzaileek demanda juridikoak egin dituzte batik bat (emakumeen %47,60k eta gizonen %62,69k). Demanda horietatik gehienek eskubideekin eta prozedurarekin dute zerikusia, baita, neurri txikiagoan, kalte-ordainekin ere.

Emakumeen %31,18k eta gizonen %22,69k arreta soziala eskatu dute. Arreta psikologikoa, aldiz, emakumeen 15,15ek eta gizonen %12,31k eskatu dute.

Kalteak.

Atal hau aztertzerakoan kontuan hartu beharra dago, jasandako kalteak kaltetuek adierazitakoak eta zerbitzuko profesionalek atzemandakoak direla. Kasuren batean gerta liteke ondorio fisikoak, psikikoak eta ekonomikoak aldi berean gertatzea.

BLZren erabiltzaile gehienak kalte psikikoen eta fisikoen biktima dira, jasandako gertakariaren ondorioz; zehazkiago, emakumeen %29,05ek eta gizonen %29,42k kalte psikikoak jasan dituzte. Emakumeen %21,60k eta gizonen %26,70ek, aldiz, kalte fisikoak jasan dituzte. Emakumeen %20,96k eta gizonen %18,21ek, berriz, kalte sozialak.



GENERO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUAK

ARRETA ESKAINI ZAIEN ERABILTZAILEEN TAULA

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G	E	G
BERRIAK	296	19	787	89	497	61	1580	169
GUZTIRA	315		876		558		1749	

ERABILTZAILE BERRIEN MOTA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G
ZENBATEKOA	1552	154	28	15	1580	169
%-TAN	98.23	91.12	1.77	8.88	100	100

BIDALKETEN JATORRIA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Barruti judizialak	1056	89	9	4	1065	93	67.41	55.03
Fiskaltza	59	14	-	-	59	14	3.73	8.28
Auzitegiko medikua	3	2	1	-	4	2	0.25	1.18
Ertzaintza	123	19	3	1	126	20	7.97	11.83
Bestelako Poliziak	11	1	-	1	11	2	0.70	1.18
Gizarte Zerbitzuak	143	12	4	4	147	16	9.30	9.47
Osasun Zerbitzuak	3	-	-	-	3	-	0.19	-
Abokatuak	59	6	1	1	60	7	3.80	4.14
LJZ/ALEZ	15	3	-	-	15	3	0.95	1.78
Administrazioa	6	-	-	-	6	-	0.38	-
Langileak	10	1	3	-	13	1	0.82	0.59
Beste erabiltzaile batzuk	16	-	2	3	18	3	1.14	1.78
Beste batzuk	48	4	5	1	53	5	3.35	2.96
E.D.D.	-	3	-	-	-	3	-	1.77
GUZTIRA	1552	154	28	15	1580	169	100	100



JASANDAKO KALTEAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
FISIKOAK	918	86	16	11	934	97	30.62	29.48
PSIKIKOAK	835	58	24	13	859	71	28.16	21.58
EKONOMIKOAK	414	66	19	9	433	75	14.20	22.80
SOZIALAK	732	65	21	8	753	73	24.69	22.19
ZEHAZTUGABEAK	69	12	2	1	71	13	2.33	3.95
GUZTIRA	2968	287	82	42	3050	329	100	100

ADINA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
0-6	1	-	-	-	1	-	0.06	-
7-12	2	1	-	-	2	1	0.13	0.59
13-18	25	4	-	-	25	4	1.58	2.37
19-25	244	6	-	-	244	6	15.44	3.55
26-35	597	65	9	2	606	67	38.35	39.64
36-45	444	37	7	7	451	44	28.54	26.04
46-55	117	27	5	3	122	30	7.72	17.75
56-65	46	4	2	2	48	6	3.04	3.55
> 65	34	6	1	-	35	6	2.22	3.55
E.D.D.	42	4	4	1	46	5	2.91	2.96
TOTAL	1552	154	28	15	1580	169	100	100

EGOERA PERTSONALA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ezkongabea	380	44	5	2	385	46	24.37	27.22
Ezkondua	620	42	15	10	635	52	40.19	30.77
Izatezko bikotea	235	31	1	-	236	31	14.94	18.34
Alarguna	21	2	1	-	22	2	1.39	1.18
Banandua	146	26	4	3	150	29	9.49	17.16
Izatezko bikote banandua	38	-	-	-	38	-	2.41	-
Dibortziatua	49	3	-	-	49	3	3.10	1.78
E.D.D.	63	6	2	-	65	6	4.11	3.55
GUZTIRA	1552	154	28	15	1580	169	100	100



IKASKETAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ikasketa gabea	10	1	-	-	10	1	0.63	0.59
Lehen mailakoak	528	85	12	6	540	91	34.18	53.85
Ertainak	605	47	10	5	615	52	38.92	30.77
Goi-mailakoak	142	5	2	1	144	6	9.11	3.55
E.D.D.	267	16	4	3	271	19	17.15	11.24
GUZTIRA	1552	154	28	15	1580	169	100	100

LAN EGOERA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
LANGILEA	Autónomo/a	70	15	3	1	73	16	4.62	9.47
	Fijo/a Cuenta Ajena	265	57	7	9	272	66	17.22	39.05
	Eventual Cuenta Ajena	142	8	4	1	146	9	9.24	5.33
	N.A.D.	3	1	1	-	4	1	0.25	0.59
LANGABEA	Ayuda Social	103	17	-	-	103	17	6.52	10.06
	Prestación Desempleo	39	9	-	-	39	9	2.47	5.33
	Subsidio Des.	13	1	-	-	13	1	0.82	0.59
	Sin Prestación Econ.	65	2	-	-	65	2	4.11	1.18
	N.A.D.	12	10	-	1	12	11	0.76	6.51
Jubilatua/pentsioduna		53	13	3	3	56	16	3.54	9.47
Ikaslea		63	8	-	-	63	8	3.99	4.73
Etxekoandrea		393	-	7	-	400	-	25.32	-
Ezkutukoa		37	1	2	-	39	1	2.47	0.59
E.D.D.		294	12	1	-	295	12	18.67	7.10
GUZTIRA		1552	154	28	15	1580	169	100	100

HUTSEGITEAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoak	Lesioak	55	11	7	1	62	12	25.31	40
	Zuhurtziagaberiak eragindako lesioak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Familiarteko tratu txarrak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Mehatxu arinak	55	10	6	-	61	10	24.90	33.33
	Irainak eta isekak	48	4	1	1	49	5	20	16.67
	Derrigortzeak	64	2	4	1	68	3	27.75	10
Ondasunen aurkakoak	Ebasketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Maula	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bidegabeko jabetza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	4	-	-	-	4	-	1.63	-
	Iruzurketa	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA		227	27	18	3	245	39	100	100



DELITUAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Askatasunaren aurkakoa	Legez kontrako atxiloketa	1	-	-	-	1	-	0.06	-
	Mehatxuak	146	17	-	3	146	20	8.99	11.56
	Hertsatzeak	49	5	1	-	50	5	3.08	2.89
Pertsonen aurkakoa	Giza hilketa	3	1	-	-	3	1	0.18	0.58
	Tentatiba	-	-	-	-	-	-	-	-
	Tratu txarrak (153 art.)	762	84	6	4	768	88	47.29	50.87
	Lesioak	56	7	2	-	58	7	3.57	4.05
Osotasun moralaren aurkakoa	Ohiko tratu txarrak (173 art.)	527	40	13	7	540	47	33.25	27.17
Sexu askatasunaren aurkakoa	Sexu-erasoa	5	-	1	1	6	1	0.37	0.58
	Bortxaketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Sexu-abusua	5	-	1	1	6	1	0.37	0.58
	Sexu-jazarpena	-	-	-	-	-	-	-	-
	Sexu-probokazioa eta exhibizioa	-	-	1	-	1	-	0.06	-
	Prostituzioa eta adingabekoen galbideratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
Ohorearen aurkakoa	Kalumniak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Irainak	-	1	-	-	-	1	-	0.58
Familia harremanen aurkakoa	Pentsioa ezordaintzea	10	2						
	Legez kontrako ezkontza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Adingabearen egoera aldaraztea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Adingabeak ateratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Adingabeak uztea	7	-	-	-	7	-	0.43	-
Justizia Administrazioaren aurkakoa	Akusazio faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Lekukotasun faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ebazpen judiziala ez betetzea	27	-	-	-	27	-	1.66	-
TOTAL		1598	157	26	16	1624	173	100	100



EGILEA

			ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
			E	G	E	G	E	G	E	G
IDENTIFIKATUA	AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	876	59	16	7	892	66	56.46	39.05
		Aurrekoa	67	11	4	-	71	11	4.49	6.51
		Ondorengoa	92	23	-	2	92	25	5.82	14.79
		Albokoa	25	11	4	1	29	12	1.84	7.10
		Ezkon-ahaidea	5	-	-	-	5	-	0.32	-
	BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	390	24	2	3	392	27	24.81	15.98
		Laguna	6	-	-	-	6	-	0.38	-
		Lankidea/ikaskidea	5	1	-	-	5	1	0.32	0.59
		Auzokoa	8	-	-	-	8	-	0.51	-
		Beste bazukt	25	8	1	2	26	10	1.65	5.91
	EZEZAGUNA		5	-	1	-	6	-	0.38	-
IDENTIFIKATU GABEA			2	-	-	-	2	-	0.13	-
E.D.D.			46	17	-	-	46	17	2.91	10.06
GUZTIRA			1552	154	28	16	1580	169	100	100

ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO BIKTIMAREKIKO HARREMANA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	14	6	20	50
	Aurrekoa	5	4	9	22.50
	Ondorengoa	-	-	-	-
	Albokoa	3	-	3	7.50
BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	3	1	4	10
	Laguna	-	-	-	-
	Auzokoa	-	-	-	-
	Beste batzuk	1	3	4	10
E.D.D.		-	-	-	-
GUZTIRA		26	14	40	100

BIZITOKIAREN ETA GERTAKARIAREN TOKIAREN ARTEKO LOTURA

		ZUZENEKO BIKTIMA		%	
		EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
BAI	Etxean	894	83	57.60	53.90
	Auzo-komunitatea	33	7	2.13	4.55
	Auzoa	117	16	7.54	10.39
	Lantokia/ikastexea	37	8	2.38	5.19
	Beste batzuk	91	3	5.86	1.95
EZ		256	24	16.49	15.58
E.D.D.		124	13	7.99	8.44
GUZTIRA		1552	154	100	100

SALAKETA JARTZEKO EDO EZ JARTZEKO ARRAZOIAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Justizia administrazioaren jardutea bilatzea	646	66	15	7	661	73	33.62	38.83
	Itzultze materiala bilatzea	18	1	-	-	18	1	0.92	0.53
	Biktima babesteko neurriak bilatzea	907	57	7	7	914	64	46.49	34.04
	Salatuarentzako neurri alternatiboak bilatzea	52	8	-	-	52	8	2.64	4.26
	Beste batzuk	19	1	-	-	19	1	0.97	0.53
	GUZTIRA	1642	133	22	14	1664	147	84.64	78.19
EZ	Egilearekiko lotura afektiboagatik	77	18	3	4	80	22	4.07	11.70
	Erasotzailearekiko beldurragatik	32	3	2	1	34	4	1.73	2.13
	Erantzun penalak arazoa konpondu ez duelako	37	1	3	1	40	2	2.03	1.06
	Justicia Administrazioarekiko konfiantza ez dagoelako	10	-	2	-	12	-	0.61	-
	Epaitegitik kanpoko akordioa dagoelako	1	-	-	-	1	-	0.05	-
	Beste batzuk	75	3	3	2	78	5	3.97	2.66
	GUZTIRA	232	25	14	8	246	33	12.51	17.55
N.A.D.		56	8	1	-	57	8	2.90	4.25
GUZTIRA		1930	166	36	22	1966	188	100	100

AURREKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Egile bera delitu bera	944	79	20	11	964	90	61.01	53.25
	Delitu bera egile ezberdina	77	11	1	-	78	11	4.94	6.51
	Egile bera delitu ezberdina	115	13	1	1	116	14	7.34	8.28
	Egile ezberdina delitu ezberdina	26	1	1	-	27	1	1.71	0.59
EZ		232	38	5	3	237	41	15	24.26
E.D.D.		158	12	-	-	158	12	10	7.10
GUZTIRA		1552	154	28	15	1580	169	100	100

BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Poliziala	24	10	-	-	24	10	1.48	5.15
	Judiziala	115	20	6	-	121	20	7.44	10.31
	Abokatuak	73	17	-	-	73	17	4.49	8.76
	Soziofaiarra	548	55	13	7	561	62	34.48	31.96
	Beste batzuk	76	11	-	1	76	12	4.67	6.19
EZ		586	50	8	6	594	56	36.51	28.87
E.D.D.		176	16	2	1	178	17	10.94	8.76
GUZTIRA		1598	179	29	15	1627	194	100	100

DEMANDA MOTA

		BIKTIMA ZUZENA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Arreta Juridikoa	Eskubideak	795	103	24	11	819	114	27.47	33.43
	Kalte ordaina	39	3	-	-	39	3	1.31	0.88
	Prozedura	515	78	10	4	525	82	17.61	24.05
Arreta Psiko.	Tratamentua	455	36	21	9	476	45	15.97	13.20
	Kontsulta								
Arreta soziala	Informazioa	859	73	19	9	878	82	29.45	24.05
	Diagnostikoa								
	Norabideratzea								
	Errekurtso kudeaketa								
Akonpainamendua		103	3	1	-	104	3	3.49	0.88
Bitartekotzarako gai		-	-	-	-	-	-	-	-
Zehaztu gabea		140	12	-	-	140	12	4.70	3.52
GUZTIRA		2906	308	75	33	2981	341	100	100

GENERO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA

Laguntza eman zaien lagunen kopurua.

2006. urtean 1.749 lagunek baliatu dute Euskadiko Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) genero-indarkeriarekin zerikusia duten arazoak direla-eta.

Erabiltzaile mota.

Datuak aztertuta, nabarmentzekoa da BLZn laguntza eman zaien lagunen %90,34 (1.580) emakumea dela; %9,66 (169), aldiz, gizona da.

Laguntza eman zaien emakumeei dagokienez, %98,23 zigor-gertakari baten zuzeneko biktima izan da, eta %1,77 zeharkakoa. Gizonei dagokienez, %91,12 zuzeneko biktima izan da eta %8,88, aldiz, zeharkakoa.

Bidalketaren jatorria.

Emakumeen kasuan, batez ere Barruti Judizialek (%67,41) eta Gizarte Zerbitzuetatik (%9,30) etortzen dira.

Gizonei dagokienez, gehienak Barruti Judizialek bideratzen dituzte (%55,03), beste batzuek Ertzaintzak (%11,83) eta, azkenik, Gizarte Zerbitzuek bideratzen dituztenak daude (%9,47).

Adina.

Adinari dagokionez, aniztasuna da nagusi. Emakume gehienek (%38,35) 26-35 urte dituzte; %20,54k 36-45 urte ditu, eta %15,44k 19-25 urte.

Gizonek ere antzeko ordenari jarraitzen diote. Gehienek (%39,64) 26-35 urte dituzte, %26,04k 36-45 urte du, eta %17,75ek 46-55 urte.

Egoera zibila.

Emakume gehienak ezkondata daude (%40,19). Ezkongabeak, aldiz, %24,37 dira.

Gizonei dagokienez, gehienak ezkongabeak dira (%30,77). Ezkonduak, aldiz, %27,22 dira eta, azkenik, izatez edo eskubidez banandu direnak, %18,34 dira.

Ikasketak.

BLZra etortzen diren emakumeen %38,92k eta gizonen %30,77k ikasketa-maila ertaina dute (Batxilergoa, LH eta abar). Gizonen %53,85ek eta emakumeen %34,18k, aldiz, lehen mailako ikasketak dituzte.

Lan egoera.

Emakumeei dagokienez, %31,08 jardunean dago, gehienak besteren konturako langileak dira edo/eta aldi baterako kontratuak dituzte (%17,22 eta %9,24, hurrenez hurren). Etxeko andreak, berriz, %25,32 dira eta, azkenik, langabezia-egoeran daudenak %14,68 dira.

Gizonei dagokienez, %54,44 jardunean dago, eta besteren kontura jarduten dute batik bat, kontratu finkoa izanik (%39,05).

Arau-haustearen mota/kalifikazioa.

Delituzko egitateari dagokionez, nabarmentzekoa da gehienek (emakumeen %51,04 eta gizonen %55,05) pertsonen aurkako delituak (lesioak, tratu txarrak eta abar) salatu dituztela.

Bigarren tokian Osotasunaren aurkako delituak daude, ohiko tratu txarrak alegia: emakumeen %33,25ek eta gizonen %27,17k salatu dituzte.

Aurreko biktimizazioak.

Atal honetan aztertzen da BLZ lehen aldiz baliatzen duten lagunek beste biktimizazio bat jasan ote duten, oraingoan azaltzera datozenaren aurretik. Nabarmentzekoa da emakumeen %75ek aldeztu aurreko biktimizazioak jasan dituela, eta kasuen %61ean delitu-egilea eta jasandako delituzko egitatea berdinak direla.

Gizonei dagokienez, %68,63k nolabaiteko biktimizazioa jasan du, eta kasuen %53,25ean egilea eta delituzko egitatea berdinak dira.

Zuzeneko biktimaren eta zeharkako biktimaren arteko harremana.

Delituzko egitatea zuzenean jasan ez badute ere, horren ondorioetako bat jasaten dutenak dira zeharkako biktimak, bai zuzeneko biktimarekin afektibitate-harremana dutelako, bai biktimaren kolektiboko kide direlako.

BLZn laguntza eman zaien eta zeharkako biktima diren emakumeen %84,62 zuzeneko biktimaren familiakoa da. Gizonen kasuan, aldiz, %7,14 ez da zuzeneko biktimen familiakoa.

Egilea.

Emakumeen eta gizonen kasuan, delitu-egilea biktimaren gertukoa da (%68,93 eta %67,06, hurrenez hurren). Gehienetan ezkontidea edo izatezko bikotekidea izaten da delitu-egilea (emakumeen kasuan, %56,46 eta gizonen kasuan, %39,05). Bigarren tokian senar-emaztegaiak edo bikotekide ohiak ageri dira (emakumeen kasuan, %24,81 eta gizonen kasuan, %15,98).

Bizitokiaren eta gertakariaren tokiaren arteko lotura.

Laguntza eman zaien emakumeen %75,51 gertakaria jazo den toki berean (etxea, auzo-komunitatea, auzoa, lantokia, ikastetxea) bizi da. Delituzko egitatea etxean bertan (emakumeen %57,60) edo bizi diren auzoan (%7,54) jazotzen da.

Laguntza eman zaien gizonen %75,98 gertakaria jazo den tokian bizi da. Kasuen %53,90etan etxean gertatu da, eta %10,39tan bizi diren auzoan.

Salaketa jartzeko edo ez jartzeko arrazoiak.

Laguntza ematen zaien biktima gehienek **salaketa jarri ondoren** eta prozedura izapidetzen ari dela baliatzen dute BLZ (emakumeen %84,64 eta gizonen %78,19).

Motibazioa.

Salaketa jartzen duten biktima gehienek babes-neurriak bilatzen dituzte salaketa jartzerakoan (emakumeen %46,49k eta gizonen %34,04k). Halaber, jasandako delituan Justizia Administrazioak jardun dezan emakumeen %33,62k bilatzen du eta gizonen %38,83k.

Delitua jasan arren salaketa jartzeari uko egiten dioten biktimei dagokienez, emakumeen %4,07k eta gizonen %11,70ek ez du salaketarik jartzen delituaren egilearekin harreman afektiboa duelako edo haren beldur delako, batik bat.

Bigarren mailako biktimizazioa.

Nabarmenezkoa da emakumeen %36,51n eta gizonen %28,87an BLZko profesionalak ez duela bigarren mailako biktimizazioaren zantzurik aurkitu. Gainera, biktimizazio mota hori gertatu den kasuetan (emakumeen %34,48 eta gizonen %31,96) gizarte- eta familia-arloan gertatu da.

Demanda mota.

Zerbitzuaren erabiltzaileek demanda juridikoak egin dituzte bereziki (emakumeen %46,39k eta gizonen %58,36k). Demanda horietatik gehienek eskubideekin eta prozedurarekin dute zerikusia, baita, neurri txikiagoan, kalte-ordainekin ere.

Arreta soziala emakumeen %29,45ek eta gizonen %24,05ek eskatu dute. Laguntza psikologikoa, aldiz, emakumeen %15,97k eta gizonen %13,20k.

Kalteak.

Atal hau aztertzerakoan kontuan hartu beharra dago jasandako kalteak kaltetuek adierazitakoak eta ekipoko profesionalek atzemandakoak direla. Eta kasuren batean gerta liteke ondorio fisikoak, psikikoak eta ekonomikoak aldi berean gertatzea.

BLZren erabiltzaileak batez ere kalte fisikoen biktimak dira, jasandako gertakariaren ondorioz; hain zuzen ere, emakumeen %30,62 eta gizonen %29,48. Emakumeen %24,69k eta gizonen %22,19k kalte sozialak jasaten dituzte. Eta emakumeen %28,16k eta gizonen %21,59k kalte psikikoak jasaten dituzte.